

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak eskatu du BEZaren gatazka Nafarroa-Estatua koordinazio-batzordean erabaki dadila

Esan du "onartezina dela" epaitegietara jotzea Itun Ekonomikoan aurreikusitako diferentziak ebazteko mekanismoak agurtu gabe

Miércoles, 17 de septiembre de 2014

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok Ogasun ministro Cristóbal Montorori eskatu dio, Foru Komunitatean lan egiten duen automobilgintza-enpresa bati dagokion BEZari buruzko gatazka itun ekonomikoaren koordinazio-batzordean erabaki dadila. Batzorde hori irailaren 30ean bilduko da eta, beraz, Espainiako Zerga Agentziak iragarriko helegitea erretira dadin eskatu du.



Barcina Lehendakaria hedabideen aurrean egindako agerraldi batean.

Barcina Lehendakariak Nafarroako Gobernuaren bilkuraren ondoren prentsurrekoa eman du gaur eguerdian, eta bertan Espainiako Gobernuarekin egun dituen harremanen berri eman da, jakin ondoren Espainiako Zerga Agentziak Auzitegi Gorenaren aurrean helegitea aurkezteko asmoa duela Nafarroak aipatutako enpresak 2007-11 aldian ordaindutako BEZa itzul dezan (1.500milioi euro inguru). Gogora ekarri behar da, 2012. urtean, enpresak bere merkaturatze-sistema aldatu zuenean, bi administrazioak BEZa ordaintzeko akordio batera iritsi zirela, oraindik indarrean dagoen akordioa.

Lehendakariak azaldu duenez, Nafarroa-Estatuaren arteko harremanak "ez daude bere une gozoenean" helegite horren iragarpenaren ondoren; izan ere, hark "beste fronte bar" irekitzen du, Administrazio zentralak foru-legeen aurka jarritako zenbait errekurtsio ebazteko zain dauden egoera batean, eta 2015-19 itun ekonomikoaren negoziatzeko prozesua zabalik dagoenean.

"Espainiak Nafarroarekin duen borroka hori berehala gelditu behar da, eta irmo eskatzen dut gure araubidearen aurka segidan jasotako irauak eten daitezten, Foru Hobekuntzan, Itun Ekonomikoan adierazita dagoen araubidearen aurka eta Konstituzioak babesten duena", azaldu du Lehendakariak. Gaineratu du, "onartezina dela Auzitegi Gorenera jotzea gatazkak eta diferentziak konpontzeko legeek adierazitako mekanismo guztiak agurtu gabe".

Lehendakariaren aburuz, itun ekonomikoaren koordinazio-batzordea da BEZaren afera jorratu behar den esparrua, "Estatuarekin hitz eginez eta negoziatuz –azpimarratu du– akordioetara heltzeko", eta ziurtatu du helegitea erretiratzea justifikatzen duten behar besteko argudio juridikoak daudela. Alde horretatik, erantsi du Ogasun ministro Cristóbal Montoro ministroak gai honi buruz borondate ona erakutsi arren, "hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua da eta akordioak idatziz finkatzeko ordua".

Azkenik, nabarmendu du Estatuaren helegiteak aurrera eginez gero, "Nafarroaren bideragarritasuna" arriskuan geratuko zela. Hori dela-eta, alderdi politikoen eta herritarren laguntza eskatu du "Nafarroaren eta foruko diru-kutxen interesak irmotasunez babesteko".